

bidegileak



Policarpo Larrañaga (1883-1956)


Egilea:

ANTTON NARBAIZA

Erlijio bizitza

*P*olicarpo Larrañaga, «Don Poli» laburduraren bitartez ezagun bilakatuko zena Euskal Herrian barrena, Plazentzia-Soraluzen sortu zen 1883ko urtarrilaren 26an. 1908an apaiztu eta egotaldi labur bat egin ondoren Elgoibarren, Eibarren geratu zen. Bertan egin zituen bere apaiz-bizitzako urterik emankorrenak harik eta 1936ko Gerra Zibilak ihes egitera behartu zuen arte. Baionan etorri zitzaion heriotza gure protagonistari 1956ko abuztuaren 30ean.

Don Polik Eibarren finkatu zen unetik bertatik ez zuen elizgizon zen aldetik,



Policarpo Larrañaga (1883-1956).

bertara agertu ziren beste zenbait apaizek bezala, lan erraza izango; lan-munduak sortarazten zituen indar harremanak zein maizegi gertatzen ziren Deba Barreneko industriaren krisiak eginkizun handiak eta desafio ez txikiagoak jartzen zizkien hari eta Eibarrera etorri ziren don Eugenio Urroz tolosarra, edota don Gabriel Manterola zeanuritarra bezalako apaizei. Guztiak norbait izango ziren euskalgintzan eta kulturgintzan.



Plazentzia-Soraluze, don Poliren sorterrria XX. mendean 1915. urtean.



Plazentzia-Soraluze herria 1915. urtean. Aurrez aurre, don Poli bataiatu zuten eliza.



Eibarko herria XX. mende hasieran bere Untzaga plaza enblematikoa barne. Eibarren aritu zen urte luzez don Poli gizarte bizitzaren alderdi gehienetan esku hartzen.

Don Poliren bizitza esango genuke hiru ardatz nagusitan bana daitekeela. Hirurotan baina, guztien gaineratik eta guztiak biltzen dagoen ezaugarri nagusi bat ageri da oinarri-oinarrian. Hau da, bere izatearen gunea kristautasuna zen; izan ere, don Poli apaiza zen zertzelada guztien gaineratik. Horrela bada, bere bizitzan zehar hasi eta burutuko dituen eki-

menek abiapuntu eta arrazoi berbera erakutsiko dute.

Zail da Don Poli moduko pertsonaia bategan haren bizitzako alderdien arteko desberdintasuna zehaztea. Baina beraren biografiara errazago heltzeko ondoko bi sailak bereiziko genituzke.



Eserita, Agustín Embil. Zutik, ezkerretik eskuinera: Eugenio Berasaluce, Antonio Aispiri, Raimundo Aranguren, Policarpo Larrañaga, Jose Alberdi eta Fr. Eduardo.



Don Poli, neska talde batek inguratuz, berak hainbeste bultzatu zuen herri-antzerki emanaldi batean.

Sindikalgintza eta justizia soziala

Haren bizi guztiko tema, kristaua, abertzalea, eta lan-munduaren sentsibilitatea ulertu ez ezik Euskal Herria guztia ere bilduko zuen sindikatua sortzea eta sendotzea izango zen.

Larrañagak bere apaiz-bizitzaren hasieratik garbi izan zuen bere apaiz izatea, euskaltzale-tasunarekin eta abertzale-tasunarekin uztartu behar zuela, baina bere kristau izateak eskatzen zion bezala, gizarte-mailan eskubide eta aukera gutxien zuten bizilagunen aldeko lana ahantzi gabe.

Geroago zehazten dugun bezala, XX. mendearen lehenengo urteetan, estatuak, erakunde publikoek, oro har, ez zuten inondik ere gizartearen sektore desberdinen babesa segurtatzen. Krisiak ez ziren tamalez oso bakanak izaten, eta haien ondorioz, segurtasun ezak, pobreziak, maiz miseriarik gorrienak, euskal biztanleriaren portzentaje esanguratsu bat inarrostean zuten.



Emakumearen prestakuntza, gizarte zereginetarako, Larrañagak bere gain hartu zuen erantzukizunetako bat izan zen.

Euskaltzaletasuna

Bere idazlan gehienek lan-mundua badute ere aipagai, Larrañagaren ahalegina handia izan ohi zen bere elizbarrutiko kristauak euskaraz bizi zitezen. Horregatik don Poliren euskaltzale-tasuna aipaturik geratu diren beste ekimenak ez bezala, esan daiteke, eragile-mailan behintzat, bere herri eta eskualdean kokaturik ibiliko dela, nagusiki.

Gizon polifazetikoa genuen hura: pilotazale amorratua, musikazalea oso, piano eta organo-jolea, antzerkia ere biziki maite zuen. Hain zuzen, antzerki munduan bere garaian herriaren baitan funtzio ludiko garrantzitsua betetzen zuten ohiturazko antzerkia bultzatzen jardun zuen: zenbait euskal autoreren obra egokitzen eta taularatzen. Gauzak horrela, batzuetan musika jartzen herri-antzerkiari (Amondarainen *Uste diñat*, *Ya lo creo!* antzerki-lan barregarriari, esaterako), bestetan antzeztaldea sortuz bere herrian bertan, eta inoiz obrak konposatuz. Ildo horretatik jarraituz, ezin ahantz, Eibarren antzeztalde bat osatzea lortu zuela herrian bertan eta eskualdean antzeztuko zuena.

Horrela sortuko zituen *Mendiko Eguna* zarzuela 1921ean, eta *Amets-larria* opera 1923an.

Gainerakoan, Larrañagaren euskarazko lanek erlijio gaiak izango dituzte ardatz, geroago ikusiko dugun bezala.

Ideologiak eta sindikalgintza

Larrañagaren bizitza hitz bakar batez definitu beharko bagenu, egitasmoak aurrera eramateko adorea, eratzaille izateko gaitasuna izan zela esango genuke. Garaiko gertakariak hurbiletik jarraitu ez ezik, beraietan esku hartzen ere saiatuko zen pertsonaiaren aurrean gaude.

Gure protagonista lanean hasten den garaian, 1910. urtearen inguruan, euskal sindikalgintzak UGT. sindikatu sozialistaren hegemonia du. Are gehiago Eibar bilgune duen Deba harroko industriagintzan. Hari itzal egiteko C.N.T. sindikatu anarkista aurkitzen

genuen. Haiekin batera, hainbatetan uga-zabekin harreman hertsia zuen Sindikatu Katolikoa, ezin zitekeen indar eraginkortzat jo.

Langile katolikoek munduan Elizak agertzen zuen sozialismoarekiko etsaigoari, aipaturiko Sindikatu Katolikoak sortarazten zuen mesfidantza gehitu behar zitzaion. Hain zuzen, Larrañagak zioenez, sindikatu hark, sozialismoaren hazkundeaz kezkatutik, ideologia hura kritikatu eta Kristo goraiatu baino ez baitzuen egiten. Fardel txikiegia langileria bereganatzeko asmoa zuen edozein sindikaturentzat.

Hura guztia kontuan izanik, argi zegoen zein izan behar zuen hautabidea don Poliren eta berak bezala pentsatzen zuten pertsonentzat.

ELA-ren sorrera eta egituraketa

Beraz, ordurako abertzale sentitzen zen don Poliren aukera garbia izango da. Nagusien-gandik alenduta jardungo zuen sindikatu bat, abertzale eta katolikoa, horra erronka. Gauzak horrela, Larrañagak buru-belarri lagunduko du izari horretako sindikatu sortzen eta indartzen («Jaunkoi» eta «aberkoi» orduan esaten zen bezala). 1911n jaioko den sindikatu hura ELA-*Solidaridad de Obreros* deituko da. *Euzko Langillien Alkartasuna*, alegia, baina herri-mailan «solidarixuak» deituko dituzte beraren kideak. Esan daiteke izugarritzko indarra hartuko zuen elkarte hura don

Poliren eta beste hainbat eragile anonimoren arrakasta handia izango dela.

Antolakuntza mailan sindikatu lanbide desberdinen arabera osatzen zen, gero guztiak herri mailan federazio bakar batean biltzen zirelarik. Horrela, armaginak, burdinakoak, edota zerbitzuetakoak bakoitzak bere baztordea zuen.

ELA Hego Euskal Herriko lau probintzietara zabaltzen zen, beroietako bakoitzak bina ordezkari zituelarik. Horretaz kanpo, beste hiru federazio pisutsu zituzten. Ondoren aipatuko ditugun nekazari eta arrantzaleen sailez kanpo, itsasontzi merkanteetakoak zeuden.



Euzko Langillia, Solidarixuen bulletinaren 1. alea. 1919. urtea zen.



Sindikatu abertzalearen 1. Biltzarra 1929an ospatu zen.



Lan-munduari oso itsatsirik ibili izan den Ego erreka XX. mende hasieran.

Lehorreko zein itsasoko langileak

Baina ez ziren euskal langileen arazoak hor amaitzen. Lehorreko langileek ez ezik itsasokoek ere biziki kezkatzen baitzuten gure gizona. Arduraturik zegoen don Poli itsasoko jendeak halako lan gogorra izan eta etekinak, ostera, ez zirelako behar bestekoak. Gauzak horrela, tostartekoen sindikatua osatzen lagundu eta haren antolakuntzan ideiak ematen jardun zuen.

Honela dio 1923an Eusko Ikaskuntza elkartearen buletinean idatzi zuen artikulua zenbait pasartetan (*Deia*, 18. zenbakia). Bertan,

Donostian urte bereko urrian ospatu nahi zuten «Arrantz-Batzarra» egin beharraren garrantziaz mintzo da. Ikuspegi oso zabala eta modernoa da idatzi hartan don Polik ematen diguna. Itsasoa, esaten du berak, lehenik eza-gutu egin behar da, bertan bizi diren espezieak nolakoak diren, zer ohitura duten eta abar. Gero, itsasgizonek arrantza-tresna egokienak behar dituzte arrantza egiteko; halaber, itsasoa industria bezala hartu behar da, handik sor daitekeen ustiaketa lehorrera ere heltzen baita. Azkenik, giza faktorea geratzen da. Arrantzalearen aldeko laguntasun aseguruak sortu behar dira. Hona bada artikulua zenbait pasarte (gaurko grafian emango ditugu):



Lekeitioko herria XX. mende hasieran. Larrañagak ekimen asko abiarazi zituen euskal kostaldeko herrietan arrantzaleak bere sindikatuaren inguruan batzartzeko.

Itsasoa oso aberatsa da: gure arrantzaleak ere txit trebeak eta bulartsuak; baina itsasolari ez zaio ateratzen ahal den aberastasun guztia, ta gure arrantzaleak beren indar ta izerdiaren saria ez dute behar bezalako ugartitasunakin irabazten.


(...) Beste edozein bizpide eta langintza ikasten dan bezela, arrantzan ere ikasi behar da; geure arrantza bulartsuak ikasi balute beren gaztetasunian itsasoaren barri, arrainen ohitura guziak, hodei ta ekaitzen ibilerak ta sortzerak, noiznahi ta beti agertzen dirazan arrantza-tramankulu berriak, ez da zer esanik asko biziera hobia ta aberatsagoa izango zutela.

Baina lehen sektoreko langileen aldeko sindikatu-sailak ez dira Espainiako II. Errepublika iritsi arte etorriko (1931-1936). 1932an, Ondarroan, *Euzko Tostarteko Bazkuna* sortuko dute. Don Polik, ikusi berri dugun legez, ongi ezagutzen zuen arrantzaleen problematika euskal kostaldean ematen zituen hitzaldien bidez. Urtebete beranduago, 1933an, *Euzko Nekazarien Bazkuna* sortuko du baserritar eta nekazariarentzat.

Ordurako bere lan erraldoia nolabait eskertzeko omenaldi handia izango du Larrañagak 1929an Eibarren. 1931n, berriz, Gasteizko gotzaina zen on Mateo Mujikak Elizaren giza ekintzetarako idazkari izendatuko du.

Langileriaren egoera zaila

Adierazi dugun bezala, Larrañagaren baitan gizartean gerta zitezkeen injustiziei buruzko kezka nabari da. Aipaturik geratu da estatuak ez ziola orduan ia inongo bermerik eskaintzen langileari. Egoera hartan, Larrañagak lan-munduaren era guztietako zailtasunak bere egingo ditu. Horretarako Eibarko herria talaia bikaina izango du. Armagintzari nagusiki lotutako herria izanik, aipaturik geratu diren krisiek gogor inarrostean zuten lan-esparru hura eta harekin batera hainbat eta hainbat familia. Langileak, oro har, gaur egungo eskubideen



Eusko Ikaskuntzaren *Deia* buletineko 1921. urteko ale bat. Bertan, don Poliren gizarte kezkek ageri dira.

laurdenak ere ez zituen garaiak ziren. Lan-munduan gertatu ohi zen kasuistika zabalak babesik gabe uzten zuen maiz langilea. Hots, lanik gabe zegoenak larri behar zuen, edota lan-istripuagatik kaltetuak, heriotza bera ere tragedia bilakatzen zen alargunarentzat; laburbilduz segurtasun sozial egokirik ezak, langilea aspalditik, bere kontura irtenbidea edo behintzat bere gabezien aringarri gerta zekizkio-

keen bestelako bideak aurkitzen saiatu ohi zen. Horregatik elkartasuna ezinbestekoa zen.

Beste horrenbeste, edo okerrago, gertatzen zen itsasgizonen esparruan. Itsasoaren egoeraren morroi, lan berez astunari arraina harra-patzearen segurtasunik eza gehitu behar zitzaien. Baziren, alor horretan, solidaritatezko adibide ederrak, esaterako, Eibar eta Ondarroako herrien artean ikusten zirenak: leho-



ELAren inguruko berriak zabaldu zituzten astekari hauek: Bilbon, *El Obrero Vasco* (1919-33) eta *Lan Deyak* (1933-37); Donostian, *Euzko Langillek* (1935-36), Gerla Zibilean Bilbora eraman zena (1936-37).



Eibarko Orbea lantegiko ugazaba eta langileak. 1840.urtean sorturiko enpresa, armagintzan hasieran, gero beste produktu batzuk ekoitziko ditu. Bertatik ospetsu bihurtuko ziren hainbat enpresario eta sindikalista atera ziren.

rrekoen krisialdietan itsasokoak laguntzen saiatzen ziren euren arrantza eskainiz. Beste horrenbeste egin ohi zuten eibartarrek ahal zutenean itsasgizonei diru-laguntzak bidaliz.

Prekarietate garaiak ziren, bada, XX. mende hasieran oraindik, Hego Euskal Herriko lan-mundua inarrosten zutenak.

Ezinbesteko elkartasun espirtu hura, alegia, zailtasuna etorri aurretik neurria hartu beharra, jasoko zuten ELAko «solidarixuek», hain zuzen; greba edo bestelako ezustekoetan, erresistentzia kaxek, alegia, sarri funtzionatu behar izaten zuten.

Emakumearen betekizuna

Urteak igaro ahala, harrezkero etorriko den ekimen-saila euskal nazionalismoaren ahalegin zabalago baten barruan ikusi behar da. Helburua: euskal gizartea egitasmo jakin baten inguruan biltzea eta sendotzea. Euskal Herria aipaturik geratu den egitasmo jakin baten inguruan egituratzea. Izari handiko proiektuez landa, kooperatibismoa, geroago aipatuko dugun emakumearen mundua, edota solidarioen esku hartze garrantzitsua politikagintzan, diogunaren lagin batzuk dira.

Horrela bada, euskal nazionalismoa erakunde desberdinez artikulatzen ari zen euskal gizartea hartan, beste elkarte berri bat sortuko da 1921ean, *Emakume Abertzale Ekintza*, «emakumeak» deituak herri-mailan. Primo de Rivera jeneralaren agintaldian (1923-1930) debekaturik egon ondoren, eta askatasun giroa sortzen delarik 1931n, bertatik aterako dira eragile bizkorrak ez ezik propagandista sutsuak ere bilakatuko diren hainbat emaku-



Mercedes Kareaga EABko mitinlaria Errepublikaldian. Don Poliren harrobikoa, lan handia egingo zuen gero ere behartsuen alde.

me. Don Polik zerikusi handia izango du horretan ere –Gipuzkoako emakumeen buruetako bat izango den Mercedes Kareaga mitinlaria Eibartik irtengo da–. Horretaz guzti horretaz, idatziko du Larrañagak *Emakume Abertzale Ekintza*ren historia hiru liburukitan.


Don Poli, Aitzol geroago bezala, ohartua zegoen emakumearen betekizun garrantzitsuaz. Gauza jakina da, mende hasierako emakumearen egoera ez zela batere eredugarria. Biztanleriaren gehiengo osatu arren, bazterturik zegoen gizarte-bizitzan. Emakumearen gizonarekiko ohiko mendetasunaz kanpo, haren baitan analfabetismo-tasarik handienak zeuden, eskolaroa beste inork baino laburragoa izaten baitzuen; boto-eskubidea, bera ere, ez zuten Errepublika etorri arte, 1931n, lortuko.

Horregatik emakumea hezi egin behar zen. Hezi, kristau bizitzarako, hezi ama bazen bere haurra kristautasunean eta abertzaletasun-euskaltzaletasunean, don Poliren bere betiko hiru ikurrak, hezi zitza. Emakumeak, oro har, eta orduko mentalitatearen arabera, gizonaren laguntzaile sendoa izan behar zuen etxean eta, behar zenean, laguntasuna eskaini euskal gizartean zeuden arazoengatik inguruan jendea kontzientziatzen. «Euskal-jazki-banategiak», euskal jantzitegiak, alegia, edota laguntzarako jangelak, arropak eta janaria eskainiz bada, sortuak izan ziren, hain zuzen, gizartearen esparrurik ahulenak: familia pobreak eta haurrak batez ere, artatzeko.

Errepublika

93 I ko apirilean, Espainiako Estatuan Errepublikak egiten duelarik eztanda, zazpi urteko diktadurak askatasun sistema batera zeramatzala uste zuten egoera aldarazteko irrika bizian zeuden indar aurrerazale eta periferiako nazionalismoak.

Errepublikak baina bi aurpegi kontrajarri erakutsiko zituen: alde batetik, egia zen konstituzio batek gizaki oroien eskubideak bermatuko zituela agintzen zuela, eta horren bidetik zihoazen jakinarazten ziren legeak, baina, era berean, hark ez zuen jakin eta ez zioten utzi, beraren kontrako indarrek lege-esparru batean bere ezadostasuna ager



Don Polik, besteak beste, musika biziki maitatu zuen. Hona hemen Eibarko Eliza Nagusiko organoaren ondoan.

zezaten lortzen. Estatu-kolpe saioak, gogorkeria kalean (sindikalistak, politiko eta hiritar soilak erailak, lan-gabezia, gerra egoera: 1934ko Iraultza), Errepublikaren bost urte luzeak, bada, nahi eta ezinaren adibide gordina bilakatuko dira.

Gauzak horrela, sindikatuen zeregina oso baldintzatzen zuen eguneroko egoera politikoak. Greben prestaketa eta, batez ere, haien ebazpena ez zen maiz istilurik gabe gertatzen.

ELAk bere eginkizuntzat hartuko zuen —eta zio horretatik ez zen don Poli urruti ibiltzen— negoziazioak bake-giroan bultzatzeko. Ez zen baina sarri horrelako egoera lortzen helburu erraza. Arestian aipatu dugun bezala, liskarrak, tiroketak, inoiz hildakoak, euskal langileak pairatzen zuen zama, bikoitza genuen: alde batetik, langile bezala, maiz soldata urriak eskuratzen ohitua zegoen, eta, bestetik, sindikatuen arteko gutxieneko adostasunera iristeko zailtasuna.

Garai hartan sindikatuak gaur egun baino askoz politizatuagoak zeuden. Hau da, sindikalgintzak politikagintzarekin zuen lotura estua ez zezakeen inork zalantzan jar. UGT sindikatuak alderdi sozialistarekin harreman hertsia zuen bezala, beste horrenbeste esan dezakegu ELA eta PNVren artean. Hain



Manu Robles Arangiz (1894-1982).

zuzen, politikaren haren parte hartu zuen solidariorik ezagunena elkarteko lehendakaria zen Manu Robles Arangiz izango dugu. ELAk gizarte mailan aldarrikatzen zituen aldatek jakinarazteko egoki zetorren Manuren figura. Bizkaitarra Espainiako Gorteetan diputatu izatera iritsi zen. Bestalde, sindikatuak, alderdi politikoak bezala, propaganda-bide egonkorrak eta eraginkorrak behar zituzten. ELAren kasuan, haren argitalpen ofizialaz kanpo, *Euzkadi* 1913tik eta *El Día* 1930etik, egunkari fidelak izango dira euskal sindikatu harentzat.



Euzkadi (1913-1937) eta *El Día* (1931).

Eragile bikaina

Azken hausnarketa bezala, eta Policarpo Larrañagaren bizitza laburbildu beharko bagenu, haren dinamismo izugarria azpimarratuko genuke. Dinamismoa, hain zuzen ere, gaur herri batean hitzaldia eskaintzen ikusiko baitugu, eta bestean, gizarte ekintza zabalena prestatzeko laguntzen.

Bere garaiko erakunde eraginkorrenen ekimenekin identifikaturik, Larrañagak Eusko Ikaskuntzaren bazkide izanik, haren zabalkunderako mintzaldiak antolatuko ditu, lan eta ekonomia arloko esperientzia eraginkorrak bultzatuz, oharturik baitzegoen zein mesedegarriak ziren herrien arteko harmonia ona lortzeko.

Illo horretatik begiratzuz, gure apaizaren pulpituko betekizuna lagungarri izango zitzaion

gero beste hainbat elizgizon bezala jendarean aritzeko. Izan ere, ez dugu ahantzi behar, orduan oso arrunta zela apaizak herri-bizitzan parte hartzea, mitin eta hitzaldien bidez, besteak beste. Euskal nazionalismoak mendearen lehenengo heren hartan sarri plazaratu zituen bere ideologiarekin bat zetozen hainbat elizgizon; Jose Ariztimuño Aitzol, Alberto Onaindia, A. Pildain eta Policarpo Larrañaga bera adibide bikainak dira.

Horrela bada, Don Poli XX. mende hereneko apaiz eta erlijio-gizon adoretu haien multzoan sartuko genuke eta zehazki, abertzaletasunaren munduan, gazteagoak ziren Alberto Onaindia eta Aitzolekin batera. Azken honekin kidesun handiak ditu don Polik. Edozein modutan, tolosarra barneratuago ikusten dugu harea politikoan eta gazteago izanik,



Gabriel Manterola Urigoitia (1890-1977). 1974ko ekaina.



Jose Ariztimuño Aitzol (1896-1936).

bere lana Errepublika garaian antzemango da, nagusiki. Don Poli, berriz, sindikalgintzan eta aipaturiko gizarte-ekintza zabalean. Lan izugarria, dena den, apaiz biek burutu zutena. Biek alde egin zuten Iparraldera frankistak sartu zirenean Gipuzkoan. Baina Aitzolek larrutik ordaindu zuen, Larrañagak, oster, eliz bizitza oparoa izan zuen bere Baionako hogeitazuzeneko egonaldiaren ondoren. Baina ez zen hura alferrikakoa izan. Bertatik euskal iheslariari laguntzen saiatu zen, guztien txaloak jasotzen zituelarik. Ordukoak ditu «Pierre Duhalde», «Andoni de Soraluce» eta «Xabier de Bursain» ezizenak. Ordukoa da halaber, *Contribución a la historia obrera de Euskalerra*.

Euzko Langillien Alkartasuna sindikatuaren historia ez ezik XX. mendearen lehen hereneko euskal langileriaren historia ere ezagutzeko ezinbesteko tresna.

Don Poliren ibilbide aberatsa mundu honetan barrena, jarraitu dugularik ezin amaitu haren zaletasun handienetako bat zen Arrate mendira igo eta bertatik ikusten zuen panorama goratuz ateratzen zitzaion gogoeta gogoratu gabe. Arrateko Amari, Euskal Herriko Txistularien zaindaria, jaidura berezia zion Larrañagak bere sorterriko Ezoziaokari bezalatsu. Hona hemen San Juan eguneko gau luzean Arratetiko ikuskizunak sortarazten zizkion bertso batzuk:



Don Poli jendaurrean hitz egiten. Oso arrunta zen garai haietan apaizen esku-hartzea mitinetan.



Arrateko santutegia. Bertako Ama Birjina, Euskal Herriko Txistulari-Elkartearen ama-besoetakoa. Don Poli izan genuen elkarte haren bultzatzaileetako bat.

Mendi-gain baten arkitutzen naiz
San Juan aurreko gabian,
Txit beldurturik banitz bezela
Haunditasun hau ikustean

Gorbea, Anboto, ditut aurrian,
Oitz eta Urko'n erdian,
Aitzgorri luze, Udalaitezekin
Urruti nere ezkerrian

Napar aldiari Aralar haundi,
Izarraitz Ernio'rekin,
Arno gailurtsu Bizkai aldetik
Kalamua belartsuakin

Ilun artian itsasua be,
Ikusten det ost-ostian,
Zerua berriz txit alaituta,
Dizdiraz izar artian.

Ni nagon mendi tontor gainian
Gurutz bat dago zutunik,
Bere basuak, maitasuntsuak,
Herri batera bihurturik.

Dana zartadaz printzaz beteta
Eta lurrera jausi ez dein,
Dago lotuta goi eta betik
Burdinazko estuntzekin

Nahi dezu jakin polit hau
Ze menditan den arkitzen?
Nahi dezu jakin nun den gurutza,
Horiek guztiok oroitzen?

Esango dizut jakin dezazun,
Esango dizut pozarren:
Nik bezela zuk maite dezazun
Dago Eibarko Arraten.

(...)

Gorde dezagun gure Herria,
Polit, ederra, garbia,
Baita Hizkuntza, ele maitia,
Jakindunen miraria.





Don Poliren argitalpenak.

— 122 —

Jesurik zerañi
beti lasteko, beti lasteko,
gare afitian, gare afitian.

*Etsen, etsen, etsen da arkitzen
Biyñia tañ etor' bai Arriarte batez.
Señara setian dago jesp'arik etsen
peñatari t'it'it'ak bilabonetsiya.*

Atate Afate'oa Josin
aldapan bada ere pelin
odoratzen biñña sartin.
Itanik bada au gare jabin
emango diga bere g'azin
bai alkanizatzeok, alkanizatzeok,
zeratikan
alkanizatzeok, alkanizatzeok,
baf degun gazta,
baldin bagator, baldin bagator,
unildidiaz, unildidiaz.

Duan, etsen, etsen da arkitzen..

Nekoz eitzez bagera ere ona
aldapa andi oietas goza,
etsen afitiaz dego Ama ona
gare jabetzat etori ona
ezin g'oiagoko zoriona
da Jesus'en ona Jesus'en ona.

**Ona emen Mendigoiti basefian, ingizaf
afitian, afkitu nituan itzneufi batzuk. 1710'
ekuaq dirala diño, ta, itxuraz, abestutzeokak
ziran.**

**COPLAS A M.^a SSMA. DE ARRIARTE
ARO DE 1710**

Oi au egunaren aleg'ia
sofa zana Eibaf'ko lufian
lrala'res zoftziganenian,
Biñña afiñte zebonian
pastore pob're batek mendian
ta Afiafitian, Arifiafitian,
jafirikan,
Afiafitian, Afiafitian

17

Polikarpo Larrañagak bere jakin-minak bultzaturik aurkikuntza politik egin zituen. Arrateko Amari eskainitako 1710. urteko koplak hauek adibide.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka honen material grafikoa ondorengoei esker lortu du:

- *Castrillo-Ortuoste fondoa.*
- *Indalecio Ojanguren fondoa.*
- *Eibartarren ahotan fondoa (Margarita Murgizuk utzita).*
- *Plazentzi-Soraluzeko Udala.*
- *Auñamendi argitaletxea. Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco.*

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: I.a, 2001eko azaroa

Ale-kopurua: 2.325

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Donostia-San Sebastián, I - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Joseba Olalde

Fotokonposizioa: E.P.S., S.L.
Beato Tomás de Zumárraga, 66 - 01009 Vitoria-Gasteiz

Inprimaketa: Gráficas Santamaría, S.A.
Bekolarra, 4 - 01010 Vitoria-Gasteiz

ISBN: 84-457-1753-7
84-457-1757-X

L.G.: VI-510/01

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística